



Curso
2006-2007
Ikasturtea

MEMORIA

DONOSTIAKO BERRITZEGUNEA

CENTRO DE APOYO
A LA FORMACIÓN
E INNOVACIÓN EDUCATIVA



Ataritzar bidea, 16 (Villa Fátima)
20013 Donostia
Tfnoa.: 943.320087.
Faxa: 943.277807
e-maila: donosgune@donosgune.net
WEB: www.donosgune.net

AURKIBIDEA:

1. Sarrera.
2. Helburu orokorren balorazioa.
3. Berritzeguneko barne antolaketa.
4. Aholkularitza/Prestakuntza ikastetxeetan.
5. Aholkulariok gauzatutako beste jarduerak.
 - a) Hezkuntza Sailak eskatutakoak.
 - b) Koordinazio bilerak.
 - c) Bestelako erakundeekin izandako harremanak.
6. Aholkularion prestakuntza.
7. Ikastetxeen balorazio-proposamenak.
8. Hurrengo ikasturteari begira.
9. Gehigarriak.

GEHIGARRIAK:

1. Ikastetxeen memoriak.
2. Ikastetxeen partaidetzaren zerrendak.
3. Taldeen ekarpenak: fitxak eta txostenak.
4. Batzordeen balorazio fitxak.
5. Ikastetxe guztien balorazioak.
6. Aholkularien prestakuntza (Intraneteko erregistroak).
7. Ikastetxeetan ez diren eskuhartzeak (Intraneteko erregistroak).

“Hezkuntzarentzat ez da nahikoa gizakiak bildu eta iraganean landutako balore komunak onartzea. Horrez gain, galdera hauei erantzun behar die: *Elkarrekin bizi, zein xederekin? Zertarako?* eta pertsona bakoitzari bizitza osoan zehar gizarte proiektu batean gogotsu parte hartzeko ahalmena eman behar dio”

(Hezkuntza: Altxor ezkutua. Nazioarteko Batzordeak UNESCOri egindako txostena)

1.- SARRERA

“Bide berriak egitea posible da aurretik norbaitek beste batzuk egin dituelako”, Honela ematen genion hasera 2006-2007 ikasturteko urteko planari. Agian orain antzeko zerbait esan dezakegu: bide berriak egitea posible da guk geuk aurrean izan ditugun egoera eta erronkei erantzuten saiatu garelako, oztopoak, zailtasunak, premi berriak oportunitate bezala bizitzeko ahaleginak egin ditugulako.

Azken urte hauetan “egosten” egon diren hainbat gai, bat-batean begi bistan jarri zaizkigu: Hizkuntza Ereduen inguruko proposamena, konpetentzietan oinarritutako curriculum berria, 2007-2010 hirurterako lehentasunezko ildoak eta programak, Berritzeguneen berrantolaketa... eta honek gazi-gozaok diren sentsazioak sortarazi dizkigu...

Urte hasieran proposatzen genuen ikastetxeekiko lankidetzan sakondu nahi genuela, aholkularitza eta prestakuntzaren bidez ikaste-irakaste prozesuen berrikuntza sustatuz eta bide horretatik ikastetxeen hobekuntzarako gure ekarpena eginez... Jakin badakigu, zabala dela oso planteatzen dugun hori. Horregatik, egokia iruditu zitzaigun lan eremuren bat azpimarratzea, eta gure ingurura begiratuz emergentea den gai bati eman genion lehentasuna KULTURARTEKOTASUNARI.

Intentsitate handiz bizitutako ikasturte honen amaieran, oroitidazki honek, besteak beste, honetarako balio du, gure lana nondik norakoa izan den ohartarazteko, egindakoaz kontzientzia hartzeko, aurrerantz eman beharreko pausoetaz jabetzeko, lan ildoak markatzeko...eta aldi berean, gurekin lanean diharduten ikastetxeei, erakundeei eta Hezkuntza Sailari 2006-2007 ikasturtean zehar burututako lanaren berri emateko.

Gure funtsezko lana ez da aurrean asko aldatu, berriz ere, Aholkularitza eta Prestakuntza izan dira Berritzegunearen zeregin garrantzitsuenak, beti ere, hezkuntzarekin zerikusirik duten prozesuak hobetzeko asmoz aurrera eramaten ditugunak. Hala ere, badaude azpi-prozesu eta gai batzuk aurrean bereziki landu nahi izan ditugunak, besteak beste:

- **Ikastetxeekiko ditugun harremanak sendotzeko urratsak egin dira aholkulari erreferentearen papera indartuz eta ikastetxe batean eskuartzeak dituzten aholkularien lankidetzan prozesuak bultzatuz.** Zentzu honetan bi motatako lana bultzatu da: ikastetxeari begira eta barne funtzionamendurako prozesuen adostea.
- **Ikastetxeetan ardaztutako prozesuei garrantzi berezia eman diegu,** ikastetxean bertan prestakuntza eskainiz (moduluen bidez), ohiko aholkularitzaren eta mintegien bidez. Hauetan landutako gaiak anitzak izan badira ere, azpimarratu beharko genuke “Kulturartekotasuna” eta

“Elkarbizitza”ren inguruko hausnarketa egiten ikastetxe batzuk aritu direla aurten ere.

- **Zuzendaritza taldeen prestakuntza.**
- ...

Txosten honetan, burututako hainbat jarduera: hitzaldi, mintegi, ikastaro, aholkularitza prozesu... jasoko ditugu, baina denek dakigu bizitutako guztia nekez jaso daitekeela dokumentu batean. Bestalde guk idazten duguna, ikastetxeek esaten dutenarekin erkatu beharko genuke, gure zeregina haiekin lankidetzan gauzatzen baita. Beraz, Memoria hau hankamotz geldituko lirateke ikastetxeen iritzia jasoko ez bagenu, horregatik atal bat eskaini diogu ikastetxeek Berritzeguneari buruz egindako balorazioari. Aurten ikastetxeen %70ak eman du bere iritzia gure zerbitzuari buruz, iaz baino %2a gehiago. Eskerrik asko egindako ekarpenagatik, ziur gaude gure eskaintza hobetzeko baliagarria izango dela.

Esan beharra dago lankide guztien partaidetzarekin lortu dugula hemen islatzen dena gauzatzea eta plazaratzea, eta hori izan dela, hain zuzen ere, aurtengo lorpenetariko bat: aholkularien inplikazioa barne prozesuen hobekuntzan.

Jakin badakigu ez garela helmugara iritsi, bidean gaudela, beraz, egindako datu bilketan eta ebaluazioan oinarrituta, datorren urtean urrats berriak egin beharko ditugula antzeman dugu. Momentu honetan batzuk besterik ez ditugu aipatuko:

- Ikastetxean ardaztutako aholkularitza – prestakuntza prozesuetan sakontzea, batez ere Konpetentzietan ardaztutako Curriculum berriaren inguruan.
- Ikastetxeetan gauzatzen diren Moduluen bidez, Hezkuntza Sailak aurreikusten dituen gai estrategikoekiko hausnarketak bultzatzea: kulturartekotasuna, elkarbizitza, IKT...

2 – HELBURU OROKORREN BALORAZIOA

Urteko Planean ezarritako helburu, jarduera eta adierazleak aztertuz.

1.- AHOLKULARITZA/PRESTAKUNTZA ESKAINTZA EGITERAKOAN, HEZKUNTZA SAILAK <u>LEHENETSI</u> DITUEN <u>ILDOAK</u> AINTZAT HARTZEA, IKASTETXEEK DITUZTEN BEHARRAK ETA EGITEN DUGUN ESKAINTZA DOITUZ.		
LORTUTAKOAK	HUTSUNE NABARMENENAK	PROPOSAMENAK
1.1.1. Ildo gehienetan proposamenen bat dago.	2. ildoan ez dago proposamenik.	Departamentuak proposatzen dituen lan ildo guztien artean, aukera bat egitea gure eskualdeko testuingurua aztertu ondoren.
1.1.2. Aholkularitza/Prestakuntzan lehentasuna eman zaio Departamentuak sustatu dituen ildoekin lotura duten gaiei.		
1.1.3. Eskaintza diseinatzerakoan Berritzeguneko taldeetan egin da.		
1.2.1. Aholkulariei eskaintza taldeka aurkeztu zaie.	Ikasturte bukaeran saio orokorra egiteko aukera.	Eskaintza aurkezteko saio orokorra hurrengo ikasturtearen hasieran egitea.
1.3.1. Kulturartekotasun gaia zuzenean ezezik zeharka ere tratatu da lan talde ezberdinetan.		
1.4.1. Bigarren ildoarekin zerikusia duten jarduera bakar bat egin da.	Jarduera honek izan duen partaidetza murrizta.	
1.5.1. Landutako gaiak/material batzuk sarean jarri dira edo CDetan banatu dira lan taldeetan.		Horrela jarraitzea eta praktika hau zabaltzea.
1.6.1. Aholkulari guztiek izan dute ikasturtean zehar prestakuntzaren bat jasotzeko aukera.		Barne prestakuntza egiten jarraitzea.
1.6.2. Aholkulari batzuk jasotako prestakuntza lehenengo hiru hilabeteko barne astean sozializatu da.	Ez da egin beste bi hiru hilabeteen bukaeran.	Aholkulariek jasotako prestakuntza besteei aurkeztea hiru hilabetearen bukaeran antolatutako saio batean.

2.- BERRITZEGUNEKO ZEIN IKASTETXEEKIKO LANKIDETZAREN INGURUKO EKIMENAK KALITATEZKOAK IZATEA		
LORTUTAKOAK-ADIERAZLEAK	HUTSUNE MABARMENAK	PROPOSAMENAK
2.1.1. Kasu gehienetan Urteko Planean jasotakoa/adostutakoa gauzatu da.		
2.1.2. eta 2.5.1 Finkatuta dauden erreferentearen funtzioak eta zereginak bete dira. Lan honetarako erabiltzen diren tresnak eguneratu dira.		Ikastetxean egiten den lehen bilera HPB programarekiko ikasturtean zehar garatu behar diren zereginak azaldu eta horretarako dokumentu karpeta osatzea.
2.2.1 Lehenengo eskuhartzea egin da eta adostutakoa Urteko Planean jasota gelditu da.		
2.3.1. Ikastetxeetan arloko irakasle zein tutoreek aniztasunari erantzuna eman ahal izateko, tresnak, estrategiak eta baliabideak eskaini dira.		
2.3.2. Landutako prozesuetan material, strategi, tresna... ezberdinak landu (erabili) dira ikastetxeen beharretara egokituz.		
2.4.1. eta 2.5.1. Webgune, Intranet edo e-mailen bidez informazio eguneratua eskaini da.		
2.4.2. Sarrerako iragarki-taulan informazioa eskegi da.		
2.6.1. Ikastetxeen inguruko bileren helburua zehaztu da gehienetan.	3. bilerako gidoia ez da egin.	Bilera guztien lan gidoia proposatzea.
2.6.2. Eskuhartzeen jarraipena - balorazioa egin da.	lido komunak adosteko zailtasuna.	Bilera bakoitzean diagnostik proposamen konkretu batera pasatzea.
2.7.1. Pedagogia Batzordean ebaluazioei buruzko hausnarketa ez da egin.		


3.- EGITEN DITUGUN JARDUEREN ERAGINA AZTERTZEKO ETA PROZESUAK LANTZEKO GUNEAK INDARTU		
LORTUTAKOAK-ADIERAZLEAK	HUTSUNE MABARMENAK	PROPOSAMENAK
3.1.1 Eskaintzan dauden hutsuneak antzeman dira eta profila ezberdinei zuzendutako eskaintza egin da.		
3.1..2. Ez da lortu Intraneteko mintegi/ikastaro/moduluen partaidetzaren zerrendak ikasturtean zehar guztiz eguneratuak egotea, bai ordea ikasturte bukaeran..	Intranet / Weggunea tresna eguneratua egotearen beharraz jabetzea.	Idazkaritzak eta Aholkulari guztiek Intraneteko datuak sistematikoki errebisatzea.
3.1.3. Eskaintza egin aurretik zuzendarien iritzia jaso da Mintegian.		
3.2.1. Ikastetxeari eskaintza egin aurretik, aholkulari erreferenteak ikastetxearen ibilbidea aztertzeke pausoak eman dira, eta baliagarriak izan dira jasotako datua guztiak.		
3.2.2. Eskaintzatik ikastetxearen ibilbidea, asmo edo beharrekin lotura gehien duten eskaintzak azpimarratzen dira.		
3.3.1. Prestakuntza prozesuen eta berriztapen proiektuen arteko lotura gero eta gehiago antzematen da.		


Beste proposamenak:

- Helburu, iharduera eta adierazleak era gardenago eta zehatzago batean adieraztea, ahal bada kopurua murriztuz.
- BGko kudeaketa hobetuz jarraitzea (ondo ikusten da prozesuak errazteko egindako bidea).

3.- BERRITZEGUNEKO BARNE ANTOLAKETA

BERRITZEGUNEA





4.- AHOLKULARITZA – PRESTAKUNTZA IKASTETXEETAN

Berritzegunearen zereginaren muina **AHOLKULARITZA** eta **PRESTAKUNTZA** prozesuak lantzea da, beti ere hauek “*hezkuntzaren berrikuntza eta hobekuntzarako*” tresna bezala kontsideratuz.

Ikastetxe bakoitzak jaso du, inkestarekin batera, Berritzegunearekiko izandako harremana islatzen duen dokumentu bat (guk jaso ditugun datuen arabera). Horretan, alde batetik, ikastetxeak zer – nolako parte hartzea izan duen Berritzeguneak antolatutako Mintegi edota Ikastaroetan, eta bestetik, Berritzeguneko aholkulariok ikastetxean izandako eskuhartzeen laburpena jaso ditugu. (Ikus 1.gehigarria)

Azken honi helduz, orain aipatuko dugu, oro har, zein prozesu izan diren landuenak Donostia eskualdeko ikastetxeetan:

a) Erreferentziazko aholkularitzatik:

- Informazioa helaraztea.
- Lantzen ari diren prozesuetarako proposak diren materialak aurkeztea edota helaraztea..
- Ikastetxeen martxa orokorra jarraitzea.
- Ikastetxeen premiak, beharrak, eskaerak bideratzea.
- Ikastetxeek lantzen dituzten esperientzien hedapena bultzatu horretarako beharrezkoak dituen laguntzak eskainiz.
- Prestakuntza – Berrikuntza Proiektu edota HUISek argitaratutako beste deialdien inguruko aholkularitza:
 - ✓ Deialdien edota BGko eskaintzaren aurkezpena
 - ✓ Aholkularitza
 - ✓ Kudeaketa
 - ✓ Moduluen inplementazioa
 - ✓ Jarraipena
- Hurrengo ikasturteari begira proposamenak adostea... (Prestakuntza-Berrikuntza Proiektuen inguruan) Ikastetxean modu intentsibo eta jarraian parte hartzen duten beste eragileekiko harremanak lantzea eta haiek antolatutako ekintzetan parte hartzea.
- Patzueragoak eskaintzen dituen baliabideen jarraipen - ebaluazio bileretan parte hartzea.
- Behar puntualei erantzutea.

b) Etapa aholkularitzatik:

- Prestakuntza Moduluen garapena ikastetxeetan: A Moduluak eta B modalitatekoak (Hezkuntza Zientifikoa, idazketa – irakurketa prozesuak, Matematika...)
- Irakurketa- idazketa prozesuaren inguruko irizpideen eskaintza.
- Hizkuntzetako programazio bateratuaren inguruko aholkularitza.

- Portfolioaren esperimentatze prozesuan aholkularitza-prestakuntza eskaini.
- Ikasleen arteko harremanak, berdinen arteko tratu txarrak, gatazken ebazpena, autoestima...
- ...

c) HPBen aholkularitzatik:

- HPBak direla eta, funtzioak, ardurak, prozedurak adostu eta informazioa helarazi.
- Balorazio psikopedagogikoak.
- HPBak dituzten ikasleen inguruan: beste profesional batzuekin (ikastetxeak: Tutore, PTE, Kontsultore/Orientatzaile, Hezkuntza Laguntzarako Espezialista...; Berritzegunekoak; EPI; Giza Zerbitzuak; Ikuskaritza; Patzuergoa...) batera bileretan parte hartu, orientazioak eskaini, jarraipena egin, baliabideak kudeatu (pertsonalak, materialak, CENak...), Hezkuntza Sailari informeak helarazi, guraso batzuekin elkartu ...
- Materialak eskaini.
- Beste aholkularien esku-hartzea bideratu.
- Programa Osagarriak informatzea eta onartuen jarraipena egitea.
- Guztiok barne hartzen dituen eskolaren printzipioetan oinarritutako erantzunak sustatu.
- Berritzeguneko mintegietan eta ikastaroetan jasotako prestakuntza erabilgarria bihurtu.
- 2007-2008 ikasturteari begira premien aurreikuspenak egin.
- Laguntza gelako proiektuaren inguruko aholkularitza.
- Etapa edota ikastetxe ezberdinen arteko bilerak gauzatu HPBak dituzten ikasleen trantsizioak errazteko edota esperientziak trukatzeko.

d) IKT aholkularitzatik:

- A moduluen implementazioa.
- Ikastetxeetan intraneten sustapena bultzatu, ereduak eta hauek abian jartzeko laguntza eskaini.

e) Aniztasuna eta Bizikidetzako aholkularitzatik:

- Ikasle etorkinen inguruan: materialak, informazioa eta orientazioak eskaini, besteak beste, harrera prozesua, hasierako ebaluazioa eta hizkuntzaren trataeraren inguruan.
- Kulturartekotasun moduluarekiko sentsibilizazioa bultzatu.
- Ikasleen arteko harremanak, berdinen arteko tratu txarrak, gatazken ebazpena, autoestima...
- Giza trebetasunak lantzeko materialak eta orientabideak.


f) Arloetako aholkularitzatik:

- Ikastetxeetan gauzatzen diren esperientzi interesgarrien ezagupena eta ekintza berritzaileak bezala kudeatzeko eta garatzeko aholkularitza eskaini.
- Aholkularitza ezberdinetatik bideratu da moduluen garapena ikastetxeetan. (Ikus 2.gehigarrian moduluen zerrenda)

Ikastetxeetan egindako lana handia izan da eta aipatu beharra dago Urteko Plana idatzi genuenean jarritako helburuen artean "IKASTETXEEKIKO LANKIDETZA HARREMANAK SENDOTZEA" zegoela eta, ditugun datuen arabera, HH-LH ikastetxe publikoekiko lortutzat eman dezakegun helburua litzateke, aldiz, BHko ikastetxeekiko pausoak eman badira ere, oraindik bide luzea gelditzen zaigula esan genezake. Bestalde, proposameneren artean honako hau aipatzen genuen: "PEDAGOGIA BATZORDEAK BULTZATUTA IKASTETXEAREN INGURUKO BARNE KOORDINAZIOA EGIN". Iaz urrats garrantzitsuak egin ziren, eta aurtengoan koordinazio hori sendotu egin dela esan genezake. Aholkulari gehienek aburuz, hau litzateke Berritzegune bezala eskaintza koordinatu eta koherentea bermatzeko gune garrantzitsuenetarikoa. Bide honetan, lagungarri suertatu dira: ordenatu diren oinarritzko prozesuak eta Pedagogia Batzordetik proposatutako lan puntuak.


Hona hemen eskainitako/garatatutako ekintzen laburpena.

(1.grafikoa)




Goiko aldean dagoen grafikoan ikasturte hasieran aurreikusita zegoen eskaintza gauzatu diren jarduerekin erkatu dugu. Bertan, moduluak, mintegiak eta ikastaroak islatuta azaltzen dira. 2. grafikoan berriz ikusten duzuen da nori zuzentzen zitaizkien gauzatutako jarduerak HH-LHko irakasleei, BHkoei edo denei (hau da, HH-LH-BHko irakasleei zuzendutako eskaintza litzateke)

(2.grafikoa)



(3.grafikoa)



Moduluak:

Ikastetxe bateko irakasleriari erantzuten dion formatua dugu hau. Lehenengo grafikoan islatuta gelditzen dena irakurriz, eskaintza – eskaeren arteko oreka handia antzematen da (aurreko urteetan ez bezala). Bestalde, aurten mintegi formatuarekin eskainitakoa (Heziketa Zientifikoa LHn eta Matematika LHn: eguneratze zientifikoa) modulu bezala garatu da 2 ikastetxeetan, mintegirako eskaerak ez zeudelako.

Azken urte hauetan ikastetxean txertatutako prestakuntza indartuz doala ikusten ari gara. Azpimarratzekoa da gure datuen arabera, **700** irakaslek parte hartu dutela honelako ekintzetan (**luz 564**). Ikastetxeek oso ongi baloratu duten formula da, besteak beste ikastetxeen beharrekiko ajuste edo doitze bat emateko aukera eskaintzen duelako. Espektatiben ajuste horretan, oraindik badugu hobetzeko beharra.


Nabarmena da ikastetxeek 3. ildoko eskaintzari egin dioten harrera ona, (Ikus 3. grafikoa). 1. eta 4. ildoetan ere prestakuntza mota hau landu egin da. Azpimarratzekoa da kasu batzuetan etapa edo klaustro osoak ere parte hartu izan duela eskainitako prestakuntzan. Grafikoan islatzen ez dena ordu kopurua da, eta horretan ere gora-behera handiak daude, modulu batzuk puntualki jasotako saioak dira, beste batzuk berriz, urte osoan zehar gauzatu dira (Ikus azpiatal honen bukaeran dagoen taula)

Bestalde, hutsuneak argi gelditzen dira: 2. eta 5. ildoetan hain zuzen ere.

Aipatu beharra dago ikastetxeei proposamenak egitea eskatu zaienean formula honen alde egiten dutela hainbat ikastetxek. Berritzegunetik lehenasuna eman nahi zaio modalitate honi ikusiz lotura zuzena duela ikastetxeak bere osotasunean antzematen dituen beharrek, nahiz eta beste formatuekin osatu beharreko prestakuntza izan, besteak beste, ikastetxe kopurua handiegia delako behar bezala erantzun ahal izateko.

(4. grafikoa)

IKASTETXEEN PARTAIDETZA MODULUETAN



■ HH-LH (publikoak) ■ BH (publikoak) ■ ITUNPEKOAK ■ BESTEAK

MODULUA	ILDOA	EMAILEA	IKASTETXEAK	PROIEKTU/ BAI-EZ	PARTAIDE KOPURUA	ETAPA	IRAKASLE MOTA	ORDU KOP.	HIZKUNTZA	BAL.
0670G01A01 IKT-AK ETA HEZKUNTZA GAUR / TIC Y EDUCACIÓN HOY. (A modulua)	4	E. Sarasa/J.Zapirain	Altza LHI	Bai	23	HH-LH	Irakasle tutoreak	10	Euskara	7
		E.Sarasa / J.Rodriguez	Intxaurreondo Ik.	Bai	34	HH-LH	Irakasle tutoreak	12	Euskara	8,2
		Elena Sarasa	Orixe	Bai	20	HH-LH	Irakasle tutoreak	6	Euskara	Buk Gabe
			Manteo-Zubiri	Bai	17	BH	Irakasleak	10	Euskara	8
0670G01A02 GUZTIOK BARNE HARTZEN DITUEN ESKOLAREN ERAIKUNTZA / CONSTRUYENDO UNA ESCUELA INCLUSIVA. (A modulua)	1	Carmen Cuesta	Eskibel	Ez	23	HH LH DBH	Irakasleak	10	Gaztelera	7,8
0670G01A03 OSASUNTSU BIZI ETA ELKARBIZITZEKO HEZITZEA./ EDUCAR PARA VIVIR Y CONVIVIR SALUDABLEMENTE. (A modulua)	1	Pilar Perea Lourdes Irastorza	Ikas-bide	BAI	20	HH-LH	Tutoreak	10	Euskara	7.9
		Aurora Uranga Ana Centeno	English School	Bai	23	HH-LH-DBH	Klaustro osoa	10	Gaztelania	7,2
		Izaskun Egia Aurora Uranga	Lauaizeta	BAI	25	BH	Klaustro Osoa	10	Euskara	6,0
		Begoña Berroeta Izaskun Egia Lurdes Lope	Altza BHI	Bai	17	DBH DBHO	Zuzendariak Irakasleak	10	Elebiduna	5,8

MODULUA	ILDOA	EMAILEA	IKASTETXEAK	PROIEKTU/ BAI-EZ	PARTAIDE KOPURUA	ETAPA	IRAKASLE MOTA	ORDU KOP.	HIZKUNTZA	BAL.
0670G01A05 KULTURA ARTEKO HEZKUNTZA / EDUCACIÓN INTERCULTURAL. (A modulua)	1	Tere Santos Lourdes Irirarte Pilar Perea	Jakintza	BAI	22	LH	Tutoreak	12	Euskara	8,2
		Lourdes Irastorza Pilar Perea	Orixe	BAI	9	HH	Tutoreak	10	Euskara	8,1
		Higinio Otazu	EPA Bergara	Bai	15	HHI irakasleak	Klaustroa	10	Elebiduna	8,5
APUNTES SOBRE EDUCACIÓN INTERCULTURAL (A05)	1	Aurora Uranga	La Anunciata	Ez	25	HH-LH BH	Klaustroa	2	Gaztelania	6,9
			La Asunción	Ez	53 Bi taldeetan	HH-LH BH	Klaustroa	2x2	Gaztelania	6,95
0670G01F06 HIZKUNTZEN ERREFERENTZIA MARKO EUOPAR BATERATUA ETA HIZKUNTZEN EUOPAR PORTFOLIOA.	3	Ana Centeno	Ibai	Ez	30	HH-LH	Tutoreak eta espezoalistak	1,30	Euskara	
0670G01F09 INGURUNEAREN EZAGUERA HAUR HEZKUNTZAN.	4	Lourdes Irastorza	Zuhaizti-Biteri	Bai	8	HH	HH irakasleak	6	Euskara	6,67
			Zuhaizti-Ategorrieta	Bai	9	HH	HH irakasleak	6	Euskara	7,67

MODULUA	ILDOA	EMAILEA	IKASTETXEAK	PROIEKTU/ BAI-EZ	PARTAIDE KOPURUA	ETAPA	IRAKASLE MOTA	ORDU KOP.	HIZKUNTZA	BAL.
0670G01F11 NATUR ZIENTZIAK ETA INTERKULTURALITATEA: IKASLE ETORKINEN APRENDIZAIK LANTZEKO BALIABIDEAK.	1	Teresa Santos	Zuhaizti	Bai	5	LH	Tutoreak, zikloko koordinatzaileak	12	Elebiduna	8
0670G01F12 MATEMATIKA INTERNETEN: WEB ORRIALDIEN ERABILERA.	4	Fernando Fouz	Irungo BG	Ez	8	DBH	Matematika irakasleak	4	Gaztelania	9
0670G01F14 EL OBJETIVO DE LA COMPRESIÓN LECTORA EN EL CENTRO.	3	Iñaki Adúriz	Amassorrain	EZ	20	HH-LH	Tutoreak	6	Euskara	positi boa
			Santa Teresa	EZ	10	-	Zuzendaritza Departamentu Buruak	4	Elebiduna	nahik oa
0670G01F16 LECTURA, ANÁLISIS Y APLICACIÓN DE SECUENCIAS DE LENGUA PARA EL REFUERZO.	3	Iñaki Adúriz	Aralar BHI	Ez	2	DBH	Gaztelera irakasleak	10	Gaztelera	8,5
0670G01F17 ERABAKIAK HARTZEN IKASI.	1	Begoña Berroeta	Mª Reina	Bai	12	DBH	Irakasleak	4	Elebiduna	3.trim
			Tutoritza mintegiko saio batean.	Ez		HH-LH	Mintegikideak	4	Elebiduna	-
0670G01F18 EL KARRIZITZA PLANA	1	P.Perea/L.Irastorza	Amassorrain LHI	Bai	26	HH-LH	Irakslere tutoreak	12	Euskara	7,6

MODULUA	ILDOA	EMAILEA	IKASTETXEAK	PROIEKTU/ BAI-EZ	PARTAIDE KOPURUA	ETAPA	IRAKASLE MOTA	ORDU KOP.	HIZKUNTZA	BAL.
IKASTETXEAN TUTORETZA PLANAREN BARRUAN.		Pilar Perea	Mendiola LHI	Bai	7	HH-LH	Irakasle tutoreak	7	Euskara	8,8
		Perea Elias, Pilar Begoña Berroeta	Mª Reina	BAI	22	HH-LH-DBH	Irakasleak	10	Euskara	7,0
0670G01F20 HIZKUNTZA NORMALKUNTZA PROZESUAK SAKONTZEN.	3	Jaione Ansola	Larramendi	EZ	50	DENAK	Klaustroa	2	Euskara	Oso ona
0670G01F21 HEZIKETA ZIENTIFIKOAREN DIMENTSIOA LEHEN HEZKUNTZA.	4	Teresa Santos	Zuhaizti	Bai	5	LH	Tutoreak, zikloko koordinatzaileak	12	Elebiduna	8
0670G01F23 HIZKUNTZA IDATZIAREN IKASTE-IRAKASTE PROZESUA	3	Lourdes Irastorza	Harri Berri	Ez	9	HH	Irakasle tutoreak	15	Euskara	8,09
			Mariaren Bihotza	Ez	8	HH-LH	Irakasle tutoreak	12	Euskara	7,5
			Intxaurrondo Hegoa	Ez	12	HH-LH	Irakasle tutoreak	14	Euskara	7,82
0670G01F24 ACCION TUTORIAL EN CIP / TUTORITZA EKINTZA	1	Begoña Berroeta	Elizaran	Ez	8	CIP eta Erdi mailako LH	Klaustroa	8	Elebiduna	8,13
0670G01F25 APRENDIZAJE DE LENGUAS POR TAREAS	3	Lui Garcia	EOI Donostia	Bai	-	Hizkuntza irakasleak	Klaustroa	15	Elebiduna	9
0670G01F26 HIZKUNTZEN PORTFOLIO EUOPARRA	3	Ana Centeno Izaskun Egia	Mariaren Lagundia	Bai	14	LH-BH	Hizkuntza irakasleak	20	Euskara	-

MODULUA	ILDOA	EMAILEA	IKASTETXEAK	PROIEKTU/ BAI-EZ	PARTAIDE KOPURUA	ETAPA	IRAKASLE MOTA	ORDU KOP.	HIZKUNTZA	BAL.
0670G01F27 HIZKUNTZA TRATAERA BATERATUA BATXILERGOAN	3	Izaskun Egia	Santo Tomas Lizeoa	Bai	3	Batxilergoa	Hizkuntza irakasleak	10	Elebiduna	-
0670G01F28 HIZKUNTZA TRATAERA BATERATUA 1. URRATSA	3	Izaskun Egia Ana Centeno	San Luis La Salle	Bai	20	LH-DBH	Hizkuntza irakasleak	20	Euskara	-
0670G01F29 EDUKI MATEMATIKOAK LEHEN HEZKUNTZAN	4	Fernando Fouz	Amara Berri	Ez	15	LH	Matematika irakasleak	10	Gaztelera	9
LAS TIC EN LA ENSEÑANZA DE LA LENGUA CASTELLANA	3	Iñaki Adúriz	Irungo Berritzegunea (Centros diferentes)	-	8	BH	Gaztelania irakasleak	2,5	Gatelania	9,0
IKT-EN ERABILERA TEKNOLOGIAN: ELEKTRONIKA SIMULAZIOA	4	Joseba Alkorta	Zibiri-Manteo	Ez	2	BH	Teknologia irakasleak	2	Euskara	9
			Loinazpe BHI	Ez	7	BH	Teknologia irakasleak	3	Euskara	-
PIKAXE PLAKAK MONTATU ETA PROIEKTUAK	4	Joseba Alkorta	Gipuzkoako Ikastolen Elkartea	Ez	12	BH	Teknologia irakasleak	3	Euskara	-
			Elizatxo Herri Eskola	Ez	2	BH	Teknologia irakasleak	2	Euskara	-
			Ernio Behea BHI	Ez	2	BH	Teknologia irakasleak	2	Euskara	-
PNEUMATIKA	4	Joseba Alkorta	Gipuzkoako Ikastolen Elkartea	Ez	12	BH	Teknologia irakasleak	6	Euskara	-

Mintegiak:

Ikastetxe ezberdinetako irakasleak Berritzegunean praktika inguruan hausnartzeko, sakontzeko, proposamen berriak egiteko lan taldeek osatzen dute mintegia. 1. grafikoak diotenaren arabera, kasu honetan eskaintza askoz ere zabalagoa izan da eskaera baino (27/17). Proposatutako batzuk, ikasgai konkretuekin lotura zuzena dutenak batik bat, bertan behera gelditu dira eskaera faltagatik.

Kasu honetan ere 1.go, 3. eta 4. ildoak dira eskaera gehien jasotzen duten mintegiak (ikus 3. grafikoa), 5 ildoan aurtengo eskaintza eta eskaera joan den urtekoaren antzekoa izan da.


Aipagarria da ikastetxe gehienetatik norbait datorrela mintegietara. Guztira **268** irakasle bertaratu dira aurtengo izandako mintegietara, iazko datuekin konparaturik (**349 irakasle**) kopurua behera egin duela ikusten da. Datu honek adierazten du momentu honetan eskualdeko ikastetxeek nahiago dutela ikastetxean bertan egiten den prestakuntza, batez ere, ikasgai konkretuak lantzeko garaian. Berritzegunetik berriz, formatu honen potentzialtasuna azpimarratu nahi dugu, alde batetik ikastetxe gehienekin harreman sistematikoa izateko aukera bezala ikusten ditugulako mintegiak, bestalde, denek esperientziak eta ikastetxeek duten eskarmentua sozializatzeko gune pribilegiatua kontsideratzen dugulako. Oso positiboki baloratzen dugu ikastetxe batzuetan egiten den ahalegina mintegietan lantzen dena ikastetxean ere isla izan dezan.

Nabaria da HH-LH ikastetxe publikoek mintegietan duten presentzia. Benetan lorpen nabarmenen artean aipatu beharko genuke hau.

Ahulezi bezala, ordutegi aiposekin asmatzeko dugun zailtasuna aipa daiteke. Aurtengo eskaintzan ikastetxe batzuk iaz antzemandako hutsuneak ekiditen saiatu bagara ere, ez dugu lortzen eskaintzen dena denentzat egokia izatea (ordutegiari begira)

(5. grafikoa)

IKASTETXEEN PARTAIDETZA MINTEGIETAN



MINTEGIAK	ILDOA	ARDURADUNA EMAILEA	KANPOKO EMAILEA	PARTAIDE KOPURUA	ETAPA	IRAKASLE MOTA	ORDU KOPU.	HIZKUNTZA	BAL.
0670G01M02 Proiektu telematiko kolaboratiboak: Gipuzkoan zehar.	1	Ana Centeno Elena Sarasa		20	LH	Tutoreak	8	Euskara	8
0670G01M04 Zuzendaritza lana HHletan/ El trabajo directivo en los centros de EPA.	5	Higinio Otazu		15	HHI	Zuzendar.	15	Elebiduna	8,75
0670G01M05 Kulturartekotasuna eta H2/ Interculturalidad y L2	1	Higinio Otazu		12	HHI	Irakasl.	9	Elebiduna	
0670G01S06 HPBen erantzunaren hausnarketa, kasuen azterketaren bidez.	1	HPB taldea	Edurne Zabala Jon Perez de Arrilucea Lourdes Otrmin Maria Mendizabal	62	LH-BH	PT eta Aholkulariak	30	Euskara	9
0670G01M08 Pelutxeak, proiektu telematiko kolaboratiboak.	1	Lourdes Irastorza		8	HH	Tutoreak	6	Euskara	7,7
0670G01M09 Hizkuntza Normalkuntza HH/LH- DBH/BATX	3	Jaione Ansola	Amaia Antero	25	HH LH BH	HNAT	15	Euskara	9
0670G01M10 Teknologia mintegia. (Donostia, Lasarte, Zarautz)	4	Joseba Alkorta Josune Zapiain		8	BH				
0670G01M15 BHINEBI 1&2	3	Lui García		10	DBH	Ingeles irakasleak	30	Elebiduna	9
0670G01M17 Tutoretza plana: elkarbitzita eta harrera plana.	1	Pilar Perea Carmen Cuesta		13	HH LH	Aholkul. Zuzend.	30	Euskara	9,6

MINTEGIAK	ILDOA	ARDURADUNA EMAILEA	KANPOKO EMAILEA	PARTAIDE KOPURUA	ETAPA	IRAKASLE MOTA	ORDU KOPU.	HIZKUNTZA	BAL.
0670G01M18 Proiektu telematiko kolaboratiboak LHn: kutxa bidaiaria.	1	Pilar Perea Elena Sarasa		14	HH LH	Irakasle tutoreak	15	Euskara	8,1
0670G01M19 Proiektu telematikoak LHn: atlas de la diversidad.	1	Elena Sarasa		Ikastaroa bihurtu da					
0670G01M20 Orientazio Arloaren gaur egungo eduki eta erronka berriak.	1	Begoña Berroeta Josune Zapirain		7	BH	Orientat.	15	Gaztelera	8
0670G01M22 Zuzendaritza taldeak: ikastetxeko hobekuntza prozesuak lantzen	5	M. Lourdes Iriarte		10	HH LH BH	zuzendariak	15	Euskara	8,21
0670G01M23 HH-LHko Zuzendariak	5	M. Lourdes Iriarte		16	HH LH	zuzendariak	15	Euskara	8
0670G01M24 IKT-en garapena ikastetxeetan.	4	Joseba Rodríguez		16	HH LH	Irakasle tutoreak			Bukatga be
0670G01M25 Hizkuntza Indartzea ikasle etorkinei(HIPI).	1	Aurora Uranga Ana Centeno		18	HH LH BH	HIPI irakasl.	15	Euskara	7,2
0670G01M27 BHINEBI 3	3	Lui GARCÍA		10	DBH	Ingeles irakasleak	30	Elebiduna	9

Ikastaroak:

Ikastetxeetako irakasleriari zuzendutako prestakuntza. Berritzegunean gai zehatz baten inguruan gauzatzen dena.

Hemen esan dezakegu asko hurbiltzen direla eskaintza eta eskaera (1go grafikoa). Kasu batzutan ez da proposatutakoa gauzatu mintegiak indartzeko planteaturik zeudelako eta hau bertan behera gelditu denez, ez zaio zentzurik ikusi ikastaroa egiteari. Beti ere, ikastetxeek edota mintegiek bizitzen dituzten prestakuntza prozesuetarako osagarri bezala kontsideratzen ditugu Ikastaroak, beraz, prozesu baten barru.


Hemen ere 1.go, 3. eta 4. ildoarekin lotura duten gaiak izan dira landutakoak batez ere.

Ikastetxe gehienek izan dute presentzia batean edo bestean, parte hartu duten pertsona kopurua **767** izan da (laz **740**). Oro har oso balorazio ona jaso dugu partaidetza zuzena izan dutenen aldetik (**7'2-9**).

Gure ustez, formula honek duen potentzialtasuna gai batzuen inguruko sentibilizazioa lortzeko edo horietan sakontzeko eskaintzen duen aukeran datza.

(6. grafikoa)

IKASTETXEEN PARTAIDETZA IKASTAROETAN



IKASTAROA	ILDOA	KUDEATZAILEA	EMAILEA	PARTAIDE KOPURUA	ETAPA	IRAKASLE MOTA	ORDU KOPURUA	HIZKUNTZA	BALORA.
(*)0670G01C01 Programación de secuencias didácticas textuales.	3	Higinio Otazu	Ramón Garmendia	11	HHI	HHI irakasleak	20	Gaztelania	9
0670G01C02 Introducción a la educación de adultos/ Helduen hezkuntzari buruzko azalpen orokorra.	5	Higinio Otazu	Higinio Otazu	15	HHI	HHIko irakasle berriak	3	Gaztelania	7.6
(*) 0670G01C05 Jornadas de Formación de EPA/ HHIko Prestakuntza Jardunaldiak .	5	Higinio Otazu	Batzuk	65	HHI	HHI Irakasleak	14	Elebiduna	8,9
0670G01C07 Enseñar a escribir ante los nuevos retos.	3	Iñaki Adúriz	Ana Camps	21	LH-BH	Gaztelera irakasleak	10	Gaztelania	8
0670G01C08+0670G01C31 Jolas ikastaroa (Hezkuntza Laguntzarako Espezialisten prestakuntza)	1	HPB taldea	Urtxintxa Taldea	$29+16=45$	LH-BH	Hezkuntza Laguntzar. Espezialist.	2,5	Euskara	
0670G01C10 Ikastetxeko INTRANET hezitzaile baten aukerak.	4	Joseba Rodríguez	Joseba Rodríguez	10	LH	Irakasleak	10	Elebiduna	9
0670G01C11 El Proyecto de Convivencia.	1	Aurora Uranga	Gema Martín Seoane	35	Guzt	Zuzend, orient, irakasl, PT	5	Gaztel	8.7
0670G01C13 La Convivencia Intercultural	1	Aurora Uranga	Colectivo AMANI	23	LH BH	Zuzenda. Orientatz. Irakasle	11	Gaztelania	8,1
(*) 0670G01C14 "Eskola testuinguruan sor daitezkeen sanitari egoerei arreta"	1	Lourdes Iriarte	Sanidad	32	Guzt		10	Gaztelania	

IKASTAROA	ILDOA	KUDEATZAILEA	EMAILEA	PARTAIDE KOPURUA	ETAPA	IRAKASLE MOTA	ORDU KOPURUA	HIZKUNTZA	BALORA.
(*) 0670G00C15 HIPI-en eta H.Hkoen prestakuntza saioa	1	Ana Extramiana	Carmen Valle Simón	90	LH BH HHI	HIPI eta HHI irakasleak	20	Gaztelania	8
(*) 0670G01C16 "Eskola testuinguruan sor daitezkeen sanitari egoerei arreta"	1	Lourdes Iriarte	Sanidad	24	Guzt		10	Gaztelania	
0670G01C20 (18/19) "Reflexión en torno a las claves y estrategias para mejorar la relación familias - centro educativo"	5	Lourdes Iriarte	Jurjo Torres MAÑANA-TARDE	55	Guzt	Zuzend. Irakas.	6	Gaztelania	8
(*) 0670G01C21 Gelan lankidetzan funtzionatzeko orientabideak	4	Víctor Bermejo	Ramón Barlam	25	BH	Cient-Tek.	6	Gaztelania	7.7
(*) 0670G00C23 Formation méthodologique por les professeurs de francais DBH	3	Rosa Aliaga	Adelino Braz	42	DBH- BH	Frantsez irakasleak	10	Frantsesa	7,7
(*) 0670G00C24 Developments in CLIL: Findig solutions and celebrating successes LH	3	Rosa Aliaga	Do Coyle	75	LH	Ingeles irakasleak	5.5	Ingelesa	7.2
(*) 0670G00C25 Creating and sharing our own models for success DBH	3	Rosa Aliaga	Do Coyle	100	BH	Ingeles irakaslea	5.5	Ingelesa	7.3
0670G01C26 Hizkuntza Idatzia	3	Lourdes Irastorza	Miriam Nemirovsky	30	HH	Tutoreak	2,5	Gaztelera	Oso ona
(*) 0670G01C27 Atlas de la diversidad proiektua	42	Elena Sarasa	Elena sarasa	5	LH	Tutoreak	4	Euskara	-

IKASTAROA	ILDOA	KUDEATZAILEA	EMAILEA	PARTAIDE KOPURUA	ETAPA	IRAKASLE MOTA	ORDU KOPURUA	HIZKUNTZA	BALORA.
0670G01C28 "BHko NNZZ eta Biologia-Geologiako irakasleentzat baliabideen aurkezpena"	41	Josune Zampirain Tere Santos	Carlos García VITA AIDELOS Máximo Luffiego	23	BH	Zientzia irakasleak	9	Elebiduna	8
(*) 0670G01C29 Nuevas pandillas juveniles: Comprensión y prevención.	11	Ana Extramiana Lourdes Iriarte	Asociación ARCO Rafael Marcos	22	BH-CIP	Irakaslea	5	Gaztelania	8,0
(*)0670G00C34 Curso de Francés	3	Rosa Aliaga	Adelino Braz				15		
0670G00C35 ARBEL DIGITAL INTERAKTIBOAREN ERABILERA DIDAKTIKOA	4	Victor Bermejo	3 hizlari	19	DBH	Irakasleak	10	Gaztelania	9

GARATU IKASTAROAK

IKASTAROA	ILDOA	KUDEATZAILEA	EMAILEA	PARTAIDE KOPURUA	ETAPA	IRAKASLE MOTA	ORDU KOPURUA	HIZKUNTZA	3ALORA.
GARATU 224 KONTROL PROGRAMATUA: PICAXE PLAKA	44	Joseba Alkorta	Joseba Alkorta	10	BH	Teknologia irakasleak	12	Euskara	
GARATU 238 OINARRIZKO ELEKTRONIKA DIGITALA	44	Joseba Alkorta	Joseba Alkorta	10	BH	Teknologia irakasleak	10	Euskara	
GARATU 209 AUTOCAD	44	Joseba Alkorta	Gurutze Puyadena	10	BH	Teknologia irakasleak	15	Euskara	
GARATU 212 BIOTECNOLOGÍA EN EL AULA	4	Zenbait hizlari	Teresa Santos		BH	Zientzia irakasleak	15		
GARATU 211 BIOLOGIA DE LO PEQUEÑO	4	Teresa Santos	Ricardo Damian Basco		BH	Zientzia irakasleak	10		
GARATU 233 QUÍMICA Y CALIDAD DE VIDA	4	Teresa Santos	Zenbait hizlari Teresa Santos		BH	Zientzia irakasleak	27		
GARATU 236 RECURSOS PARA LA ENSEÑANZA DE LA FÍSICA EN SECUNDARIA	4	Teresa Santos	Zenbait hizlari Teresa Santos		BH	Zientzia irakasleak	21		
GARATU 247 ANÁLISIS DE MATERIALES TIC EN LENGUA CASTELLANA Y LITERATURA	3	Iñaki Aduriz	Iñaki Aduriz	14	BH	BH hizkuntza irakasleak	20	Gaztelera	

Bestelako ekintzak:

EKINTZA	ILDOA	ARDURADUNA	KANPOKO EMAILEA	PARTAIDE KOPURUA	ETAPA	IRAKASLE MOTA	ORDU KOPURUA	HIZKUNTZA	SORTUTAKO MATERIALA	BAL.
MATERIALAREN AURKEZPENA: ELIKATZEKO ESKUBIDEA, PREMI AZKOA	6	Izaskun Egia	Prosalus, Cáritas Guipúzcoa, Mugarik gabeko al baitariak	4	BH	Gizarte Zientzien irakasleak	2	euskara	Giza eskubideak goseari aurre egiteko (CD)	
PROIEKTUAREN AURKEZPENA: KOSMODISEA (EKINTZAILITASUNA)	6	Begoña Berroeta	BIC BERRILAN	12	HH LH BH	Zuzendariak	2	euskara	Hazi eta Hezi materiala	
PRESENTACIÓN DEL SISTEMA DE ENSEÑANZA FONTAN	1	Lourdes Iriarte	Julio Fontán			BG-etako aholkulariak	1	Gaztelera	-	
ESKOLAKO MATERIALEN AZTERKETA GENERO IKUSPEGITIK	1	Ana Extramiana	NARO	13		-	3	-	-	

Prestakuntza / Berriztapen Proiektuen deialdiaren ondorioz gauzatu diren proiektuak:

31 ikastetxek eskatu dute Prestakuntza proiektua:

54 prestakuntza ekintza garatuz, 10 A modulu eta 44 B modulu.

Hauetatik Berritzeguneak eragin zuzena izan du 18 ekintzetan.

30 ikastetxek eskatu dute Berriztapen proiektua:

